


Energia berriztagarrien komunitateak
sortzeko bidelaguntzarako gida
Partaidetzaren begiradatik





www.energiakomunitateak.eus

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEAK SORTZEKO BIDE LAGUNTZARAKO GIDA

PARTAIDETZAREN BEGIRADATIK



**Europar Batasunak
kofinantzatua**

Gida hau Europar Batasuneko Horizon 2020 ikerketa- eta berrikuntza-programak finantzatu du, 952930 zenbakidun akordio bidez. Hala ere, gida honetan argitaratutako iritziak eta emaitzak Goienerrek jasotakoak dira, eta Europar Batasunak ez du bere gain hartzen informazio horren gaineko ardura.

1.	AURKEZPENA	5
2.	ERREFERENTZIA-ESPARRUA	5
2.1.	Energia Berriztagarrien Komunitateak (EBK)	5
2.2.	Komunitatea eta partaidetza.....	7
3.	EBK BAT SORTZEKO URRATSAK	9
3.1.	HASIERA EMATEA	11
3.1.1	EBK bat sortzeko baldintzak	12
3.2.	PRESTATZEA.....	17
3.2.1.	Alderdi teknikoak	17
3.2.2.	Partaidetzaren inguruko alderdiak.....	19
3.3.	ELKARREKIN SORTZEA	22
3.3.1.	Talde Sustatzailea sortu	22
3.3.2.	EBK sortu	23
3.3.3.	Lantaldeak sortu	28
3.4.	ABIATZEA	31
4.	MATERIALAK	33
4.1.	Eragileen matrizea	34
4.2.	Karta didaktikoa	35
4.3.	Zergatik gaude hemen?.....	36
4.4.	Harremanak eta talde-kohesioa	37
4.5.	Talde-lana eta antolaketa-egiturak.....	38
5.	ERREFERENTZIAK	39
6.	ESKER ONA	39

1. AURKEZPENA

Gida honek zure herriko **Energia Berriztagarrien Komunitatearen (EBK) sorreran lagundu** nahi dizu, eta informazio, aholku praktiko eta erremintez osatuta dago. Halere, liburuxka honek ez ditu EBK baten sortze-prozesuak barnean biltzen dituen urrats eta alderdi guztiak sakon jorratzen, helburua ez delako hori zehazki; **aitzitik helburutzat dauka partaidetzaren begirada integrala txertatzea**.

Eta zergatik partaidetza? **Prozesu hauen “egiteko modua” definitzen duelako partaidetzak**. Horrela, pertsona erdigunean eta elkarrekintzan jarrita, **komunitateko kideak beraien ingurunea eta bizitza hobetzearen protagonista aktibo bilakatzeko** estrategiak eta baliabideak ematen ditu partaidetzak, berdinetik berdinerara eta arreta, emaitzan bezainbeste, prozesuko bizipenetan jarrita. Horretarako, arazo eta intereseko gai komunaren kontzientzia hartu behar da, baina hori ez da nahikoa. Benetako parte-hartzeaz hitz egiteko, **beharrezkoa da, gainera, pertsonak gai izatea eragin nahi duten gaiari buruzko erabakiak hartzeko**.

Gida honetan, beraz, EBK baten sorrera partaidetzaz egiteko kontuan hartzeko faktore garrantzitsuenak aurkituko dituzu. Betiere, malgutasunez eta inspirazio-iturri gisa erabiltzeko tresna dela kontuan izanik, ez baitu bilatzen prozesuak homogeneizatzea, kontrakoa baizik. Beraz, kontuan izan prozesuaren alderdi guztiak tokian tokiko aukera eta errealitatera egokituko beharko direla, baita partaidetzari dagokiona ere.

Gidak ahalik eta probetxugarriena izan nahi du Euskal Herri osoko pertsona eta komunitateentzat eta, zergatik ez, baita haratago ere. Ekin bideari!

Gidak hiru atal nagusi ditu. **Lehenengoan EBK-k sortzeko bide laguntzarako gida honen erreferentzia-esparrua jasotzen da**, parte-hartzearen garrantzia azpimarratzearekin batera. **Bigarren atalean EBK-k sortzeko prozesuaren lau urratsak azaldu ditugu**, partaidetza erdigunean jarriz. Era berean, atal honetan, bidea egiten lagun diezaguen bidelaguntzaren egitekoa zein izan beharko lukeen erantsi dugu. Eta **azken atalean lagungarri izan daitezkeen hainbat material eta baliabide txertatu ditugu**.

2. ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Energia Berriztagarrien Komunitateak sortzeko gako nagusiei heldu aurretik, beharrezkoa da, gure iritziz, sortze-prozesurako erreferentzia-esparrua ezartzea, horretan oinarrituko baikara.

2.1. Energia Berriztagarrien Komunitateak (EBK)

Nondik gatoz? Nora goaz?

2018 eta 2019 urteetan Europako Batzordeak energiaren sektorearen inguruko **bi zuzentarau** jarri zituen martxan. Dokumentu **horietan trantsizio energetikoa bizkortzeko premia azpimarratzen da** eta hori posible egiteko, besteak beste, **Energia Komunitateen rola adierazten da**. Zuzentarauek, alde batetik, **Energia Berriztagarrien Komunitatea** definitzen dituzte (gida honetan proposatzen direnak eta 2018koak definitzen dutenak), eta, bestetik, Herritarren Energia Komunitateak (ez dira proposatzen gida honetan, baina baliagarriak izan daitezke hori sortzeko prozesuan laguntzeko). Tokian toki egun existitzen diren hainbat ekimenei esker behetik gora diseinatutako politikak errealitate bihurtzen dira. Dinamika hori areagotzeko, Europako Batzordeak energiaren arloan Energia Komunitate diren eta izango diren ekimenak sustatu, bultzatu eta sendotu nahi ditu.

Ez dugu, hala ere, urrutira joan beharrik **ekimen kolektiboen berri izateko eta haien garrantziaz jabetzeko**. Atzera begiratu besterik ez dugu, adibidez, hemen bertan auzolanek edota batzarrek izan duten garrantzia ikusteko, izan lan edo behar konkretuetarako nahiz herritarren antolamendurako. Ereduak eta baldintzak denborarekin aldatzen joan badira ere, helburu berbera dute funtsean Europako proposamenek eta ezagun ditugun ohiturek: **tokian tokiko baliabideak erabiliz, denontzat onuragarria den horretan jardutea**. Izan herri bideak, basoak, eraikinak, ura edota, kasu honetan, energia. Hori horrela, esan daiteke goitik datozen irizpideak nolabaiteko aitortpena direla ezagun ditugun eta behetik datozen modu eta antolamendu jakin batzuei, nora goazen jakiteko lagungarri izango baita nondik gatozen horri erreparatzea.

Garai bateko moduak gaur egungo behar eta baldintzetara egokitu beharko dira, baina tokian tokiko baliabideak erabiltzearen garrantziak indarrean darrai: baliabide naturalak, teknologikoak, ekonomikoak eta, kasu honetan batez ere, giza-baliabideak. Azken horri arreta berezia jarri beharko zaio nora goazen argi izan nahi badugu, eta horrek berebiziko garrantzia hartzen du bizi dugun krisi garaiotan. Klimarena, ekonomikoa, zaintzarena edota osasun krisia dira azken aldian zeresan gehien ematen dutenak, baina horietaz gain ere **bestelako krisiek gero eta beharrezkoagoa egingo dute tokikotasunaren bidez burujabetzari heltzea, zer esanik ez energiaren krisiak, edota lehengaienak**.

Egoera horretan, **erresilientziaren beharra azaleratzen da**, beste batzuen artean bertan bertakoaren eta garaian garaikoaren logikari jarraituz, herritarrek herritarrentzat eginda. Energiaren kasuan, iturri berriztagarriak dira logika horretara gehien gerturatzen direnak. **Energiaren inguruan antolatze moduari dagokionez berriz, Energia Komunitateak**. Bi horien arteko uztarketaren bidez, beraz, izango du gizarteak gaitasun hobeagoa egoera ezberdinen aurrean erantzun egokia eta justua izateko, **komunitate izaera funtsezkoa izanik erresilientzia sozial sendo baterako**. Kolektibotasuna eta goian aipatutako baloreak praktikan jarritz heldu da Goiener egun bizi duen egoerara, eta bide horretan jarraitu nahi du, gida honen bidez besteak beste, herritar eta eragileak ahalduztearen bidez tokian tokiko ekimenak abiarazteko bultzada izaten, energiaren bide korapilatsu honetan bidelagun.

Zer da EBK bat?

Energia Berriztagarrien **Komunitatea jarduteko gaitasuna duen entitate juridiko**¹ bat da (eta bere helburu nagusia da **energia berriztagarrietan oinarritutako soluzioen garapena sustatzea**, baina betiere **eremu lokalean, partaidetza bidez, era irekian eta ez-diskriminatzailean**). Helburu nagusiak hauek izango dira: **onura ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak** eskaintzea komunitateari berari eta hura garatzen den tokiko inguruneari. **Onura finantziarioak ez dute lekurik izango edo ez dute lehentasunik izango** beste onurekin alderatuta.

Zergatik EBK bat?

Energia zeharkako 'behar' bat delako, eta «tresna» gisa erabiliz **gizarte harreman-estruturaz ereduak eraldatu nahi ditugulako**: bidezkoagoa, solidarioagoa, ingurumena errespetatuko duena eta ahaldundua.

Energia guztiok berdintasunean baina modu iraunkorrean eskuratu behar dugun ondasuntzat hartzen dugulako.

¹ IIDMA-ak Europako zuzentarauak aztertuta eta Espainiako entitate juridiko guztien ezaugarriekin alderatu ondoren, zuzentarauak betetzeko elkarte edo kooperatiba bat izan behar zela ondorioztatu zuen).

Izan ere, **erronka handi samarra izanik, elkarrekin egin behar dugu**, pertsona eta erakunde guztiok, motibazio edo interes desberdinak izanda ere, uste baitugu hori guztia batera egin dezakegula eta egin behar dugula.

Zertarako EBK bat?

- **Energia-kontsumoa murrizteko** eta, aldi berean, gure bizi-kalitatea hobetzeko.
- Gure **energia-faktura murrizteko**, kontzientziazio- eta eraginkortasun-neurriak hartuz, energia berriztagarriak erabiliz eta abar.
- **Energia-subiranotasuna sustatzeko**, non erabakiak geuk har ditzakegun eta ez enpresa handiek beste herrialde batzuetan.
- **Gizarte-kohesio handiagoa sustatzeko**, guztion artean berdintasunez autogestionatzean.
- **Tokiko ekonomia sustatzeko**, jarduera ekonomikoa garelako, eta zirkuitu ekonomikoa murrizteko, bereziki ahalegintzen gara energiaren arloan erabiltzen ditugun baliabideak tokian bertan ahalik eta gehien gera daitezten.

2.2. Komunitatea eta partaidetza

Komunitatearen ideiak gero eta garrantzi eta presentzia handiagoa hartu du azken urteotan, diskurtsiboki zein praktikan, baina terminoa bera oso konplexua izanik, zaila da komunitatearen definizio bakar bat adostea. **Komunitateaz dihardugunetan, tradizionalki, auzo, herri edo bizilagun-komunitate bateko kideen arteko konfiantza- eta elkarrekintza-loturei egiten diegu erreferentzia.** Horrela, komunitatearen esanahiaren barruan, badira hein handi batean autore askok konpartitzen dituzten elementuak, Marco Marchioniren definiziotik abiatuta (2004):

- Lurraldea (eremu fisiko mugatua).
- Biztanleria eta biztanleen arteko elkarreraginak (pertsonak, erakundeak...).
- Baliabideak.
- Eskariak: komunitatearen beharrak, nahiak, arazoak, intereseko gaiak...
- Partaidetza: komunitate jakin batean herritarrek parte hartzeko dauden tresnak, organoak, prozesuak.

Esparru honetan gehiago sakonduz, esku-hartze komunitarioaren definiziora jauzi egiten badugu, hiru dimentsio hauek hartu behar ditugu kontuan (Morales, E. eta Rebollo, O., 2014):

- **Komunitate osoa barnean hartzea, haren aniztasun osoa**, alegia; inor ere ez uztea prozesu kolektiboetatik kanpo eta arreta berezia jartzea kolektibo zaurgarriengan.
- **Biztanlearen ahalduntzea** (gizabanakoak eta taldeak), erantzukizuna banaka eta taldeka hartzeko prozesuaren emaitza gisa.
- Bizi-baldintzak hobetzea; aukera berriak sortzea eta **bizikidetzak-esparruak eraikitzea, beharrei erantzuteko**, beti ere hurrengo belaunaldiei utziko dizkiegun bizibaldintza eta ondareari erreparatuz.


Gida honetan, tokiko mailako prozesuetan zentratuko gara, eta baliatu egingo ditugu eskaintzen dizkigun aukerak. Izan ere, toki-mailan aritzeak erraztasunak ematen dizkigu konfiantzan eta kolaborazioan oinarritutako harremanak eraikitzeko, baita herriko ehun sozialaren egoera eta hori osatzen duten sareak gertutik ezagutzeko ere. Finean, honelako prozesu bateko kideen ezaugarrietako bat bada biztanleria-talde jakin batek beharren bat, arazoren bat edo interesgune bat partekatzen duela eta komunitate berean bizi direla, eta aktiboki saiatzen direla behar, arazo edo interesgune horiek identifikatzen, erabakiak hartzen eta horiei erantzuteko mekanismoak ezartzen. Baina ezin dugu pentsatu **komunitate bat pertsona- eta interes-multzo homogeen bat denik; aitzitik, komunitateak gizartearen konplexutasunaren isla izango da eta aniztasuna eta botere-harremanak kudeatzea oso garrantzitsua izango da.**

BERAZ, ZERGATIK ABIATU EBK BAT SORTZEKO PROZESU BAT? HAMAIIKA ARRAZOI

- Energia oinarritzko eskubidea delako.
- Energia Berriztagarriak sustatuz, energia fosilen erabilera gutxitzen lagunduko dugulako.
- Krisi klimatikoari aurre egiteko aukera bat sortuko dugulako.
- Kontsumo eredu arduratsua eta jasangarria sustatuko dugulako
- Tokian tokiko baliabideak eta irtenbideak eskainiko ditugulako.
- Pobrezia energetikoari aurre egiteko ekimenak sustatu ahal izango ditugulako.
- Komunitatearen parte-hartzea bermatuko dugulako.
- Elkarrekin eraikiko dugulako, guztion behar eta interesak kontuan hartuta.
- Herritarrak energia eta partaidetza gaietan ahalduntzeko aukera emango dugulako.
- Pertsonak erdigunean jarriz "beste egiteko modu" batzuk daudela ikusaraziko dugulako.

3. EBK BAT SORTZEKO URRATSAK

Energia Berriztagarrien Komunitate baten sortze-prozesua lau urratsetan egitea proposatzen dugu, EBK bat sortzeko lehen ideia edo eskaeratik hasi eta bere kabuz funtzionatzen duen EBK bat izan arte.



Urrats bakoitzari bere denbora eskaini behar zaio, hau da, **pausoz pauso joan beharra daukagu elkarrekin oinarri sendoak definitu**, komunitatea eraiki eta proiektua martxan jartzeko.

Era berean, prozesu lineal gisa irudikatu dugun arren, **EBK baten sortze-prozesuak une oro berrikustea eskatzen du**, hau da, etengabe atzera eta aurrera egin beharko dugu ondo ari garela eta **ezer edo inor ahaztu ez dugula ziurtatzeko**.

Urratsez urratseko azalpenetara igaro aurretik, komenigarria iruditzen zaigu azpimarratzea EBK sistema bizia eta konplexua dela, baina prozesuan parte hartzen duen jendearen artean dagoen jakintza eta prestutasunaren arabera, Goiener edo beste bidelagun bat bilatzeko aukera aztertu beharko da hainbat behar asetu eta onura ezberdinak ekarri bait dakizkioke komunitateari:

- **Parte-hartzean:**

Tresnak, teknikak eta trebetasun pertsonalak garatzeko baliabideak eskainiko dizkio taldeari.

Helburuetan edo harremanetan sortzen diren oztopoak gainditzeko estrategiak eta kanpo-begirada.

Konfiantza- eta lankidetzeta-giroan gizabanako eta talde gisa hazteko laguntza.

- **Arlo Teknikoan:**


Tokiko aukera eta baliabideak identifikatu, egokiak diren teknologiak aukeratu eta hauek garatzeko proiektuen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertzeke.

Energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako proiektuak hautatu eta garatzeko bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertzeke baliabide egokiak, bai eta era guztietako energia-kontsumoaren murrizketarekin lotutako zerbitzuak emateko ere.

- **Arlo juridikoan:**

EBK sortzeko prozesuan sortuko den entitate juridikoaren nondik norakoak: bazkidetzeta ereduak, gobernantza, estatutuak, finantzazioa, eta abar luze baten erabakitzerako.

Beti ere, **kontziente izanik bide laguntza beharra ikusten den esparru batean edo guztietan bila daitekela eta komunitatea ahalduntzea duela helburu**, eta bere sorreratik protagonismoa komunitateari emateko bokazioa duela, eta. (“Bidelaguntzatik interkoperaziora”).



3.1. HASIERA EMATEA

Hasierak erabakigarriak dira etorkizuneko arrakastarako; hortaz, arretaz eta patxadaz ekingo diogu.

Puntu honetan, **EBK baten irismena eta sortzeko oinarrizko baldintzak aztertu beharko ditugu**, betiere komunitatea erdigunean jarrita.

Honelako prozesu bat abiatzeko nahia bide desberdinetatik (udala, herriko kolektibo bat...) etor daitekeela kontuan izanda ere, hasiera emateko fase honetan, **interesa agertu duen eragileak** eta horrela erabaki bada, bidelaguntza egingo duen eragileekin batera, **Sostengu Taldea osatuko du**. Talde honen egitekoa izango da **prozesua aktibatzeke baldintzak betetzen diren txekeatzea eta segimendua egitea**. Horrenbestez, Sostengu Taldearen biziraupena, tokian tokiko prozesuaren arabera izango da.

Nolanahi ere, EBK bat sortzeko proiektuari ekin aurretik, zehatz-mehatz jakin behar dugu **zer den EBK bat eta zer ez den**.

Zer da EBK bat	Zer EZ da EBK bat
<ul style="list-style-type: none">• Erakunde bat, autogestio sakonaren begiradarekin, eta anitza.• Tokiko baliabide berriztagarriak kontutan izanda, egokitzapen energetiko integrala bilatzen duena.• Berriztagarrien proiektu eta zerbitzu jasangarriak sustatzen dira eta bidezkoak eta inklusiboak ere izan behar dira.• 3 onura motak sortzen dituena, aldi berean: gizarte, ingurumen eta ekonomikoak.• Bere dinamikan oinarrirituta kohesio soziala eta ahalduntzea areagotzen duen proposamen integrala.	<ul style="list-style-type: none">• Erakunde bat, non kontrol eraginkorra ez dagoen partaideen eskuetan. Aniztasuna ez da balore bat.• Arazo energetiko bakar bat konpontzeko nahian dabilenean.• Hasieratik inklusioa ez denean edo jasangarritasuna partziala denean, zeren teknologia ez baita 'neutrala'.• Epe motzeko onura ekonomiko eta finantziaroei lehentasuna ematen zaionean; "zenbat aurreztuko dudan" galdera bakarria bilakatzen denean.• Tokiko beste errealitate eta dimentsioekin bat egiten ez duenean.

Testuinguru honetan, EBK bat **zer den argituta** eta hori nahi dugula berretsita, **EBK sortzeko baldintzak ezarri behar ditugu**.

3.1.1. EBK bat sortzeko baldintzak

EBK sendo eta bideragarri bat lortzeko, **aurretik 3 baldintza** bete beharko ditugu:

- A. Eragile giltzarriak identifikatu eta erakartzea.
- B. Prestutasuna, lerrokatu gida honetan aipatzen diren balioekin...
- C. Gure kabuz aurrera aterako dugu komunitatea? edo bidelaguntza beharko dugu? Horretarako aurreikusi behar ditugu hasieratik hurrengo ezaugarriak:
 - Baliabide tekniko eta ekonomikoak lortzeko aukerak aztertzea.
 - Tokian tokiko behar energetikoak ezagutzea.
 - Tokian tokiko baliabide energetikoak ezagutzea.

Hirurak garrantzitsuak dira, baina une honetan eta partaidetzaren ikuspegitik, lehenengo baldintzan jarriko dugu arreta, EBK askotarikoa eta konprometitua sortzea baitugu helburu.

A) Eragile giltzarriak identifikatu eta erakarri, prestutasuna.

EBK ahalik eta komunitate askotarikoena eta zabalena izatea nahi dugu, ekin beharreko bideari sendotasunez eusteko. Horregatik, ahalegin handia egin beharko dugu ekimenera norbanako eta eragile desberdinak batzeko, guztiok baikara giltzarri.

Nortzuk gara eragile giltzarriak?

- **Herritarrak:** adin, genero, jatorri, esperientzia, jakintza... desberdinetakoak eta energia berriztagarrien aldeko apustua egin nahi dutenak, energia modu lokalean sortu eta elkartasun-mekanismoak lehenesten dituztenak.
- Herri-eragileak, elkarteak, bizilagun elkarteak,...
- **Udala** edo tokian tokiko administrazio publikoa.
- Tokian **tokiko enpresak:** izan energia berriztagarrien arlokoak edo ez, baina energia berriztagarrien aldeko apustua egin eta komunitatearen indarrean sinesten dutenak.

Zergatik da garrantzitsua tokian tokiko udalen presentzia ekimen hauen garapenean?

Europako zuzentzauek adierazten dute, energia berriztagarrien esparruan trantsizio justu bat lortzeko, beharrezkoa dela tokiko udalek parte hartzea eta komunitate hauen sorreran laguntzea .

Izan ere, udal batek hainbat alderdi erraztu baititzake, hala nola: baliabide teknikoak (materiala, espazioak, komunikazio-bideak...), baliabide ekonomikoak (dirulaguntzak, hobariak...), baliabide pertsonalak (bidelaguntza, aholkularitza...).



Europako zuzentzauek hala azpimarratzen dute, energia berriztagarrien esparruan trantsizio justu bat lortzeko. **2018/2001** eta **2019/944** zuzentzauek tokiko Udalek parte hartu eta komunitate hauen sorreran laguntzea beharrezkoa dela adierazten dute.

Komunitate berriztagarriaren misiotik abiatuta, **Agenda 21**, Estatuko **PNIEC**, **EAEko Iraunkortasun Legea**, **Alkateen Ituna**, Nafarroako **Trantsizio Energetikoari eta Klima-Aldaketari buruzko Foru Lege Aurreproiektua**, eta beste instantzia batzuk finkatzen ari diren helburuk kontuan hartuz, Udalerriek helburu hauek betetzea ezinbesteko ikusten dute.



Energia modu lokalean sortzeak, herrialdeko irabazien ihesa murrizten du eta hau energia ez berriztagarrietara bideratzea ekidingo du.

Berdintasunean eta ekitate-printzipioan oinarrituta, herritarren parte hartzea sustatzen du.



Egungo egoera globalean ematen diren ziurgabetasun egoeren aurrean (etorkizun batean gure eskualdeetan jasango ditugunak), erresilientzia sustatzen du, komunitate trebetasunak sortzean.

Egoera zahurrean dauden pertsonak **komunitate berriztagarrian integrazeko aukera ematen du** eta elkartasun mekanismoak ezarri daitezke laguntza mekanismoen ordez..



Energia Komunitateek tokiko erakundearen laguntza eta partaidetza badute, sinesgarritasun handiagoa dute.

Halaber, **eragile-giltzarri izateak ez dakar ezinbestean guztiek eginkizun bera izatea**, baina guztiak beharrezkoak gara. Aipatutako eragileok eraldatu beharreko egoeraren gaineko ezagutza eman behar dugu eta parte-hartze aktiboa izatea ziurtatu behar dugu. Beraz konpromisoa, prestasuna eta elkartasuna transmititu behar ditugu.

Eragileen matrizea egiteko dinamika proposamena “Materialak” atalean dago.

Hurrengo urratsa eragile horiengana hurbiltzea izango da, eta horretarako estrategia eta bide desberdinak ditugu:

- *Informazio-bilerak*

Zer da EBK bat? Zergatik? Zeintzuk dira gure nahiak? Zeintzuk dira beharrak? Zeintzuk dira aukerak? Nola egitea proposatzen dugu? Non? Noiz? Nor? Hemen azaltzen diren balioekin lerrotatuta al gaude?... eta beste hainbat galdera erantzungo ditugu bertan, EBK-ko Talde Sustatzailean parte hartzeko gonbidatzearekin batera.

Informazio-bileretarako deialdia eragileen matrizean zehaztu ditugun estrategien bidez egin genezake, hala nola: tokian tokiko udalaren komunikazio-kanalak erabiliz, etxez etxeko informazioa bidaliz, komunikazio-kanpaina bereziak eginez...

Informazio-bileretan arreta non jarri:

- Hau guztia aurrera eramateko, bereziki azpimarratu nahi dugu komunitateko kideen inplikazioa ezinbestekoa dela eta herritar orok, bakoitzak bere roletik eta bizipenetatik, egin diezaiokeela ekarpena prozesuari. Azken finean, herri-ikuspegia eta herri-onura dela ikusmiran izan behar duguna eta horretarako desberdinen arteko elkargunetatik eraikitzearen garrantziaz jabeaz beharko ditugu.
- Batzuentzat hurbilekoak ez diren gaiak landu behar ditugu, baina azpimarratuko dugu zenbat eta komunitate askotarikoagoak parte hartu, orduan eta proiektu aberatsagoa osatzera iritsiko garela.
- Bidean bidelaguntza eta prestakuntza egongo dela jakinarazi. Eta posible bada, prestakuntza-aldiaren lehenengo bilera-eguna proposatu.

- *Zubilana.*

Informazio-bileraz gain, eta komeni zaigu batik bat bilerara etorri ez diren edo etorri ezin izan diren norbanako eta eragileengana hurbiltzea; kasu horretan, zuzeneko harremana bilatuko dugu, harreman batek beste batera eramango baikaitu.

Hortaz, behin EBK beharrezkoa dela ziurtatuta, eta interesdunak identifikatuta, EBK bat sortzeko baldintzak badaudela ikusiko dugu eta hurrengo urratsera pasatuko gara.

B) Baliabideak baditugu?


EBK sortzeko borondatetik haratago, beharrezkoa da konpromiso bat eta hainbat alderdi ezagutzea. Azken alderdi hori beteta daukagu, "Prestakuntza" atalean ezagutza teknikoan eta parte-hartzailean sakonduko baitugu. Konpromisoa handitu egiten da konfiantza handitu ahala, baina hasieran gaudela jakinda, zintzoak izan beharko genuke, eta galdera hauek egin beharko genituzke: Nahikoa indar dugu EBK sortzeko prozesua gure kabuz aurrera eramateko? Hala ez bada, laguntza beharko dugu? Nahikoa baliabide dugu? Nahikoa ez badira, nola lor ditzakegu?

Aurrekari moduan hemen laburbiltzen dira **gutxienezko baliabideak**:

- **Koordinazioa egiteko.** Talde motorra, sustatzailea osatuko duten kideen artean, deialdiak egin, aktak jasotzea, dokumentazioa txukun eduki, eta abar.
- **Partehartze prozesua bultzatzeko.** Nola burutu bilerak, dinamika eta materiala aproposa erabiliz, helburuak lortzeko lagungarria izan dadin.
- **Alor teknikoa eta ekonomikoa lantzeko.** Udal, eskualde mailan zer baliabide energetikoak ditugun, zer beharrak, nola uztartu biak; zer teknologiak erabili daitezkeen, non, tamainak,... Zer eragile mota ditugun (bertakoak, kanpokoak) aurre bideragarritasunak aztertzeko.
- **Alor juridikoa** definitzeko, eraketa prozesua aurrera ateratzeko. Erakunde bat osatu behar dugu. Horren bideragarritasun propioa, ez proiektuena soilik, aztertu behar da; zer joko arauak ezarriko ditugun, horretarako alor honen inguruan jakintza, adituak beharko ditugu.

Beraz, **EBKren beharra egiaztatu eta interesa duten pertsonak eta eragileak identifikatu ondoren, EBK sortzeko baldintzak egiaztatuko ditugu** eta hurrengo urratsera pasatuko gara.

HASIERA EMATEA



3.2. PRESTATZEA

Pertsonen garapena eta gizartearen ahalduntzea ehun sozial sendo bat sortzera bideratuta dago, eta prestakuntzak lagundu dezake **pertsonak beraien gaitasunak, ezagutza, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa indartzen.**

Fase honen helburu nagusia, beraz, **herritar edo/eta eragile interesatuak ahalduntzea izango da**, eta zeharka bada ere, proiektura gerturatzeko baliatuko dugu.

Hala ere, tokiko errealitatearen eta parte-hartzaileen arabera, "Prestatzea" fase hori "Elkarrekin sortzea" atalarekin batera egin daiteke. Parte-hartzearen ikuspegitik, aukerarik egokiena prestakuntza orokor irekiak ematea izango litzateke, eta, ondoren, "Elkarrekin sortzea" ataleko antzeko oinarri batetik abiatuta, talde sustatzaile gisa ahalduntzea eta erabakiak hartzea.

Prestakuntza-fasea, bi atal nagusitan banatzen dugu: bata, **alderdi teknikoa**; bestea, **partaidetzaren** inguruko alderdia. Tokian tokiko baliabide eta unearen arabera erabakiko dira prestakuntza-saioen kopurua, iraupena eta gisakoak.

Horrenbestez, **prestakuntza-fase hau interesa duen pertsona orori zabaltzea gomendatzen dugu.**

Jarraian azalduko ditugu alderdi teknikoan eta partaidetzan lantzeko edukiak eta zergatiak:

3.2.1. Alderdi teknikoak

Eduki aldetik **4 saio aurreikusten dira** baina 'metatu' daitezke, beharren, partehartzaileen abiapuntu, kopuru, arabera. Honekin irudikatzen dugu zer gaietan eduki behar dugu informazioa, gero erabakiak hartzeko garaian prest egoteko.

- **Zer da EBK bat eta eskaintzen dituen aukerak.**

EBK batek, bakoitzak bere kabuz egin ezin duena, modu kooperatibo eta herritar baten egiteko aukera ematen du, trantsizio energetiko justu bateranzko norabidean pausoak emanez. **Saio honetan EBK zer diren, zertarako, ikuspegi orokorra landuko da**, denok jakiteko zein izan daitekeen honen misioa, bisioa, eta abar.

- Zer proiektu mota garatu daitezkeen:**

Hurrengo taula jarraituz (moldatu behar) azaltzen dira teknologiak, proiektu motak, eta eman daitezken zerbitzuak. Saio honetan komenigarria da tokiko baliabideen ikuspegi bat izatea.

ZERBITZUA - EGITEKOA		EGUZKI		HAIZE	HIDRO	BIOMASA		
		FV	Termikoa	Mini	Mini	Basoko	Agro	Hondakinak (Biogasa)
Autokontsumoa	Banakakoa							
	Partekatua							
Energia Ekoizpena	Elektrikoa							
	Termikoa (Beroa, Hotza)							
Zerbitzuak, Aholkularitza	Birgaitzeetan (Partziala, Sakona, Integrala)	Energia iturriarekin ez dauka loturarik baina hobekuntzak egiteko garaian bakarrik energia berriztagarriak erabiliko dira						
	Efizientzia	Energia iturriarekin ez dauka lotura zuzena.						
	Formazioa eta informazioa	Energia iturriarekin ez dauka lotura zuzena.						
Karga Puntua (Ibilgailu Elektrikoa)								
Ibilgailu Partekatua (Car Sharing)								
Demandaren Agregatzailea								
Merkaturatzaile Jarduera	Elektrizitatea	Argin indar iturria berriztagarria bada soilik						
	Gasa							
	Beroa / Hotza							

- Proiektua
- Zerbitzua
- Ez du zenturik

- Merkatu Elektriakoaren funtzionamendua:**

Sorkuntza, garraioa, banaketa eta merkaturatzean banatzen da merkatu elektrikoa. Garraioa eta banaketa enpresak arautuak daude eta ez dira EBK baten aktibitate espezifikoak. Sorkuntzan eta merkaturatzean aldiz, edonork egin dezake, liberalizatuta bait daude; dena den, autokontsumoa, merkatutik atera egiten den figura bat da, autokontsumitzen dena ez baita fakturitzen. Autokontsumo instalazio baten sobe-rakina, sorkuntza bezala kontsideratzen da, dagokion merkaturatzaileak erabiliko baitu bere energia bezala.

- **Kooperatibaren Gobernantza eredua** (parte hartzea, nola, zein, boterea, erabakitze aukerak)

EBK baten gobernantza egitura gisa, hiru bazkide motak osatutako kooperatiba proposatzen da. Saio honetan, kooperatiba bateko partaidetzaren gaia aztertuko dugu: nola, nork, boterea, erabakitze aukerak... Bazkideen botere gehiena kontsumitzaileek dute, eta bertan egongo dira herritarrak, merkatariak eta elkarteak, eta, kasu batzuetan, enpresa txikiak. Beste bazkide mota batzuk: langileak, zerbitzu emaileak, laguntzaileak (bereziki udalentsat) eta inbertitzaileak.

3.2.2. Partaidetzaren inguruko alderdiak

Prestakuntza-saio honetan **partaidetzaren garrantzia azpimarratuko dugu**, zer nolako onurak dituen bai norbanakoarentzat, baita komunitatearentzat ere. Horrela, eta partaidetzaren begiradatik, honako gai hauek landuko ditugu:

- **Espektatibak ezagutzea:** Garrantzitsua da taldea osatzen duen kide bakoitzaren espektatibak ezagutzea, etorkizunean gertatuko denaren ustea edo nahia partekatzea, alegia. Garrantzitsua izango da ariketa hau lehenengo elkarguneetan egitea, espektatibak errealistak ez badira, lehenbailehen doitzeko eta frustrazioari bidea ixteko.
- **Talde-kohesioa:** Oso elementu garrantzitsua da talde batek eraginkortasunez lan egin dezan. Hona hemen talde-kohesio handiko lantalde baten onura nagusiak: taldeko kide bakoitzak besteekin modu koordinatuagoan lan egitea, asebetetze-maila handiagoa eta aurreikusitako gabeko egoeretara egokitzeko gaitasun handiagoa.

Tresna eta dinamika asko daude garatuta talde-kohesioa lantzeko, baina hona hemen kontuan izan beharreko elementu garrantzitsu batzuk:

- **Lidergo partekatua:** lidergo partekatuko taldeek talde-kohesio handiagoa dute partekatua ez dutenek baino. Horrek ez du esan nahi taldearen barruan liderrik egon behar ez duenik,; aitzitik, esan nahi du erabakiak adostasunez hartuko direla eta iritzi-trukaketari eta elkarrekin eraikitzeari espazioa emango zaiola. Lidergoak erantzukizunaren eskutik joan behar du, eta lider onek gauzak egiten direla zaintzen dute, taldean sartzen diren kide berriak eroso egotea bermatzen dute eta guztien ahotsari presentzia emateaz arduratzen dira.
- **Malgutasuna:** lantaldeak egokitzeko gaitasun handiagoa eta malgutasuna izanez gero, zabalik egongo da kide bakoitzaren uneko egoera eta beharretara egokitzeko, eta kide bakoitzaren inplikazio-maila desberdinak onartuko ditu.
- **Komunikazioa:** taldeko kohesioa hobetzeko beste alderdi garrantzitsu bat komunikazioarena da, eztabaidak eta erabakiak hartuko diren guneak argi izatea eta gardentasunez aritzea.
- **Etengabeko ebaluazioa:** taldeko kohesioa hobetzen duen beste elementu bat etengabeko ebaluazioa da, bakarka eta taldean. Saio bakoitzaren ondoren ebaluazioari tartea eskaintzeak hobetzeko neurri zuzentzaileak hartzea ahalbidetzen du.
- **Taldearen osaera:** Edozein proiekturen funtsa edo motorra partaideak dira; horregatik, garrantzitsua izango da taldearen osaeraren inguruan hausnartzeko etena egitea: nork osatzen du taldea? Norbait falta da? Galdera horiei erantzuteko, garrantzitsua da tartea eskaintzea taldeko kideen ezagutzen, motibazioen eta trebetasunen azterketa egiteari, are gehiago taldea askotarikoa izatea bilatzen badugu. Ohikoa izaten da kolektibo zaurgarrirenetako kideak (emakumeak, migranteak, gazteak...)

hasieran taldea osatzen denean ez egotea; beraz, hori aldatzeko estrategiak martxan jarri beharko dira.

- **Bileren antolaketa:** Bilerak talde-lanaren funtsezko osagaiak dira, baina eraginkorrak izan daitezten ez dira inprobisazioan oinarritu behar. Garrantzitsua da bileren aurretik, bileretan zehar eta ondorengo zereginak argi izatea, parte-hartzaile guztiek esperientzia ona eta emankorra izan dezaten. Horrela, hona hemen kontuan hartu beharreko alderdi batzuk: deialdiak garaiz egitea, aktak eta zereginen konpromisoak jasotzea, bileren gidoia aurretiaz lantzea, bileren iraupena aurrez zehaztu eta errespetatzea, elkargunea eroso izatea, etab.


Bilerak antolatzeko erreminta, karta didaktikoa, "Materialak" atalean dago.

LABURBILDUZ, NOLA LORTU TALDE SENDO ETA ERAGINKOR BAT IZATEA?

- Hartu taldekideen artean konfiantza sortzeko behar den denbora.
- Ezagutu zeintzuk diren taldekide bakoitzaren espektatibak eta EBKren helburuetara doitu.
- Aurkitu taldearentzat bilera erritmo egokia eta ziurtatu bilerak ondo bideratzen direla eta ez direla infinituraino luzatzen.
- Gogoratu taldekide guztiek hemendik kanpo beste nahi eta betebeharrak batzuk dituztela, hala nola, ikasketak, soldatapeko lana, zaintza-lanak, aisialdia...eta moldatu egoera horietara
- Erabili dinamika eta baliabide desberdinak, bereziki garrantzitsuak baitira pertsonen hartu-emanen sendotzeko, elkarlana sustatzeko, talde giroan eragiteko...
- Ez ahaztu taldekideak desberdinak garela eta aniztasuna kudeatu behar dela
- Ziurtatu bilera bakoitzeko aktak hartu eta partekatzen direla. Eta bakoitzak hartutako konpromisoen segimendua egin.
- Planifikatu jarduera dibertigarriak eta lorpenak ospatu



PRESTATZEA



3.3. ELKARREKIN SORTZEA

Sostengu Taldea arduratu da orain arte prozesuak aurrera egiteko baldintzak jartzeaz eta segimendua egiteaz, baina, aurrerantzean, gomendagarria da eginkizun hori pixkanaka talde zabalago baten funtzioetan integratzen joateko bide egitea: Talde Sustatzailea. Prozesua mailakatua izan daiteke, eta horren ondorioz, tarte batzuetan bi taldeak (Sostengu Taldea eta Talde Sustatzailea) aktibo egotea posible da, baina bidea modu naturalean egin beharko genuke funtzio hauek Talde Sustatzaileak barneratzeko.

Halaber, Talde Sustatzaileak baloratu beharko du komenigarria den momentu batetik aurrera gaikako lantaldeak sortzea. Tokian dagoen indarraren arabera erabaki beharreko puntua izango da, baina gomendatzen dugu lantaldeak aktibatzearen inguruko gogoeta fase honen hasieratik egitea.

3.3.1. Talde Sustatzailea sortu

Une egokia da EBK baten sortze-prozesuan giltzarri izango den taldea eratzeko. Talde hau prozesuaren garapenean lan egin nahi duten eragile, norbanako eta erakundeetako kideek osatuko dute. Prozesua abian jarri eta ondo bideratzeko, baldintza egokiak prestatu eta sortuko dituen pertsona-multzoa izango da, bera arduratuko da prozesua garatzeko ekintza guztiak egoki koordinatzeaz.

Tokian tokiko errealitatearen arabera talde honen konfigurazioa desberdina izango da, baina badira, normalean, **kontuan izan beharko ditugun hainbat alderdi**. Hona hemen aipagarrienak:

- **Osaera:** taldea 8-20 pertsonak osatu beharko luke, herri-tamaina eta dauden aukeren arabera. Horien artean, bilatu beharko da taldea askotarikoa, desberdinen arteko elkargunea izatea. Horrenbestez, arreta berezia jarri beharko da tamaina, eraginkortasun eta aniztasunaren arteko uztarketan eta horren kudeaketan.
- **Taldearen funtzionamendua adostu:** bileren maiztasuna, tokia, formatua (telematikoki/ presentzialki), metodologia... Ez dago sobran hori guztia jasoko duen dekalogo bat sortzea, betiere, malgua eta irekia, ordea.

Tokian tokiko errealitate soziolinguistikoaren arabera, hizkuntza irizpideak adostu

Bileratan hizkuntza kudeatzeko irizpide desberdinak jarrai daitezke, hala ere, bada irizpide nagusi bat:

- Pertsona bakoitza libre da nahi duen hizkuntza erabiltzeko...

Baina kontuan izan...

- Denok ez dakigu euskaraz, ez gaude maila berean.
- Garrantzitsua da eroso sentitzea, ez inor behartzea.
- Garrantzitsua da informazioa ez galtzea, komunikazioa ziurtatzea.

Taldeko kide guztiok irizpide hauekin ados egonez gero, kasuan kasu, hizkuntzen kudeaketari konponbidea bilatu beharko diogu. Xuxurlari figura erabili, hizkuntzaren araberrako taldeak egin...

- **Ardurak definitu:** komenigarria da eginkizunak zerrendatzea eta horiek aurrera eramateaz nor arduratuko den finkatzea. Hasieran pisu handiena Sostengu Taldeko kideek hartu beharko dute, baina elkarrekin sortzeko prozesuan aurrera egin ahala, Talde Sustatzaileko kideen artean banatu beharko dira lanak, betiere eta posible izanez gero, kide bakoitzaren beharrak eta interesak kontuan hartuta. **Hortaz, eginkizun, lan eta informazioaren trasbaseari arretaz heldu beharko diogu eta behar duen denbora eskaini.**

Noski, garrantzitsua izango da Talde Sustatzaileko **pertsonen artean konfiantzazko harreman sendoak sortzea**, elkar lagundu eta proiektuaren lidergoa bereganatzen joateko. Horrenbestez, ezinbestekoa izango da denbora hartzea partaide bakoitza zerk motibatzen duen eta bakoitzari zer gustatzen zaion ezagutzeko, horrek, aldi berean, zereginak eta lanak hobeto banatzea ahalbidetuko baitu. Horrela, prestakuntza-fasean partaidetzaren ikuspegitik jasotako ezagutzak praktikan jartzeko unea iritsi da. Ikus 4. atala.

Espektatibak lantzeko dinamika “Materialak” atalean dago.

3.3.2. EBK sortu

Hiru alderdi nagusiren barruan hasiko gara EBK sortzen:

A) Komunitatearen definizioa

Tokiko garapenari lotutako prozesuetan, komunitatea oso garrantzitsua da; izan ere, hurbileko sareak dira, batez ere, tokiko identitatea eta herri-proiektuekiko atxikimendua indartzen dutenak. Jakina da bizilagunen, ezagunen nahiz kolektiboen arteko elkarrekintzak giza kapitalaren potentziala biderkatzen duela eta erronka izango da indar hori helburu komun baten mesedetan jartzea.

Hortaz, komunitate sendoa eta eraginkorra izan dadin, hurrengo alderdiak izan beharko ditugu kontuan:

a) Ikuspegi eta helburu argi eta partekatuak izatea. Une honetan zehaztu beharko dira, taldeak EBKrekiko dituen espektatibetatik abiatuta, komunitate honen helburu zehatzak eta komunitatearen izanaren balioak. EBK baten **misio orokorrak** aurrez hitz egin da, baina, fase honetan, garrantzitsua izango da tokiko EBKren **helburu zehatzetara** jaitea eta helburu horiekin koherentzian joango **den balio-sistema** edo -markoa zehaztea.

b) Taldearen ezaugarrietara egokitutako antolaketa eta funtzionamendua definitzea. Nola antolatuko garen denon artean definitu eta erabaki beharko dugu. Ongi planifikatutako antolaketa-egitura batek balio du ahaleginak helburuetara bideratzeko eta komunitateko kide guztiak norabide berean aritzeko. Antolaketa-egitura finkatua izateak koordinazioan laguntzen du, botere-harremanak orekatzen lagundu dezake, erabaki-guneak zeintzuk diren finkatzen du, komunikazioa errazten du...

Hori bai, nahiz eta antolaketa eta funtzionamendua zehaztuta izan, **adi egon beharko dugu taldean sor daitezkeen egitura ez-formalei**, hau da, adostutako antolaketa-egituratik kanpo sortzen diren harreman-sareei, erabaki-guneei... Izan ere, kasu batzuetan onuragarriak izan daitezke, baina gehienetan botere-harremanen oreka hautsi eta gatazkarako bide izan baitaitezke.

c) Informazioa kudeatzeko prozedurak ezartzea . EBKren barruko informazioa eta ezagutza nola kudeatuko dugun adostu beharko dugu, EBK barne-komunikaziorako baliabideak adostearekin batera.

d) Kide berrien harrerarako jardunbideak jasotzea. Garrantzitsua da kide berriak hurbiltzen direnerako harrerako jardunbide bat izatea; izan ere, guztioi gustatzen baitzaigu leku berri batera iristean besoak zabalik har gaitzaten. Horrela, eta hurbiltzen den kide guztiei ongi etorri berdina egiteko helburuarekin, harrera nola egin adostu beharko dugu: EBKren ikuspegia eta helburuak aurkeztea, EBKren funtzio-namendua eta estruktura aurkeztea, bere interesak, beharrak... ezagutzeko tartea eskaintzea. Harrera on batek kide berriak EBKren egunerokoan lehenago txertatzea lagunduko digu, komunitatearen parte izatearen sentimendua jorratzearekin batera.

e) Harremanak eta talde-kohesioa lantzeko espazioak diseinatzea. Ezinbestekoa da komunitateko kideen arteko harremanak eta zaintzari espazio bat eskaintzea, benetan EBK epe laburrera baino gehiago epe luzera irautea nahi badugu. Hortaz, egunero eragin beharko da talde-kohesioan, hasi bilera eta lan-saioetan denbora-tarte bat eskainiz, noizean behin komunitateko kideen asebetetze-maila ezagutzeko tartea hartuz edo komunitate bezala egindako aurrerapausoen aurrean ospakizunari toki eginez.

Harremanen eta talde-kohesioaren garrantzia. "Materialak" atalean dago.

f) Ebaluazio-mekanismoak adostea. Garrantzitsua da baloratzea espero genituen helburuak lortzen ditugun ala ez, hau da, espero genuena betetzen ari den jakitea, baita eguneroko jarduneko bilerak, lantaldeetako lan-dinamikak... berrikustea ere.

Nola egingo dugu?

Komunitatea Talde Sustatzaileko partaide guztien artean definitu behar bada ere, hasierako alderdiak talde handian eztabaidatu eta adostu daitezke, proposamena "Komunitate eta Komunikazio Lantaldea" osatzea da. Lantalde honetako kideek komunitatea zaintzeko eta harreman-sarea zabaltzeko ardura izanen dute.

Azpimarrak

- Talde Sustatzailean parte hartzeko aukera beti zabalik egongo da; beraz, arreta jarri kide berrien harreraren: aurkezpenak, non gauden azaldu, eroso sentitzeko baldintzak sortu, etab.
- Ez galdu begi-bistatik elkarren zaintza. Talde-lanak elkar zainduta egotea eskatzen du; horrek konfiantza-giroa sortuko du eta ezinbesteko baldintza izango da eraginkortasunez aritzeko. Adi alderdi emozionalari eta ez izan beldurrik egunerokoan sor daitezkeen gatazkei aurrez aurre begiratzeko.
- Maiztasun batekin taldearen asebetetzea aztertu eta ospakizunari eta gune informalei ere bide eman.

B) Energia-proiektuak aukeratu

Komunitateak garatuko dituen proiektuak hautatzeko garaia heldu da. Horretarako, lehendabizi, herriak dituen aukeren arabera, **proiektu posibleen mapa** osatu beharko da eta egon daitezkeen aukeren artean, lehentasunak finkatu beharko dira. Horretarako irizpide nagusia proiektuen bideragarritasuna izango da.

Energia-proiektuak

- Iturri berriztagarrietatik datorren energia sortzea, tokian tokiko bitartekoen arabera
 - Eguzki-teknologia fotovoltaikoa, eolikoa, hidroelektrikoan oinarritutako elektrizitatea sortzeko proiektuak...
 - Beroa sortzeko/banatzeko proiektuak (beroa/hotza).
- Komunitatearen energia aurrekia eta eraginkortasuna areagotzeko aholkularitza-zerbitzua eskaintzea.
- Pobrezia energetikoaren aurkako borrokan kontratuen auditoriak, kontsumo efizientzia eta autokontsumoa sustatzea.
- Garraio eta mugikortasun jasangarrirako alternatibak eskaintzea.
- Argindar sorkuntza berriztagarriko proiektuak sustatzea, komunitateko kideei energiaren prezio hobek eskaintzeko.

Nola egingo dugu?

Talde Sustatzaileko kide guztiek parte hartuko dute energia-proiektuen proposamenean. Energia-proiektuak proposatzerakoan, bideragarria izatea gomendatzen da "Energia-proiektuen lantaldean", hau da, proiektu desberdinak proposatu eta horien bideragarritasuna aztertzea izango da lantalde honen egiteko nagusia. Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, urgentsia eta eragin dezakeen ingurumen-inpaktua, zein inpaktu soziala izango dira, gutxienez, kontuan izan beharreko alderdiak. Ez dago metodologia bakar bat inpaktu-mota guztiak neurtzen dituen, kasuan kasu egokiena bilatu beharko da, baina, zehazki, inpaktu soziala aurreikusteko, baliagarria izango zaigu balioen markoa eraikita izatea. Ondoren, bideragarritasun-azterketaren emaitza talde sustatzailean partekatzea eta bertan erabakiak hartzea.

C) Kooperatiba-eredua definitu

Fase honetan gobernantzak eta alderdi juridikoak ere presentzia hartuko du. Horretarako, lehendabizi, EBKren eraketa juridiko egokiena kooperatibarena dela sozializatu beharko dugu eta horrek dakartzan inplikazio guztiak: ezaugarri nagusiak, organoak, bazkide-motak eta pisua...

Normalean, erakundearen hezurdura aurkezten da eta ildo nagusienak, horren inguruan erabakiak hartu ahal izateko. Honekin batera, EBKren bideragarritasuna bere osotasunean aztertuko da.

Nola egingo dugu?

Kooperatiba bat sortzea konplexua da; beraz, kooperatibaren xehetasun nagusiak Talde Sustatzailean aztertu eta erabakiko diren arren, "Talde juridiko-administratibo" bat sortzea proposatzen da, alderdi tekniko eta konplexuenak lantzeko. Kooperatibaren estatutuak landu beharko dira eta bertan jasoko diren organo, bazkide-mota eta finantzazio-iturrien inguruko gogoetak egin. Horrek guztiak definituko du komunitatearen gobernantza-eredua bera. **Komunitatearen bideragarritasun ekonomikoa** ere landu beharko du, denboran zehar iraun dezan.

Zergatik kooperatiba?

- Europako zuzentarauen irizpideen arabera bikain egokitzen den erakunde mota delako.
- Sortuko den erakundea konplejidade maila erdi-altua izango delako eta kooperatibek, baloreez, legez eta diseinuz, oso ondo moldatzen dira horrelako egoeretara. Nahiz eta hasiera batean iruditzen konplejuegi izan daitekeela kooperatiba eredua, epe ertainean kooperatibek dituzten joko arauak errazten dituzte prozesuak, barneko bizitza eta harremanak.
- Hasieratik tokiko erakunde publikoen partehartzea bermatzen delako, inolako eragozpenik gabe.
- Bultzatzen delako bizimodu eta espiritu kooperatibo alor askotan, ez energia mailan solik. Kohesioa bultzatzeko nahian kooperatiben bultzatzen dituzten balioak hedatzen dira herri mailan.
- Bazkide-motak eta komunitatean duten zeregina zehaztasun handiz definitzen duelako.
- Bazkideen eskubideak, betebeharrak eta harremanetarako moduak zehaztera behartzen duelako.
- Kudeaketa, gobernu eta fiskalizazio organoak finkatzen dituelako, baita horietako bakoitzaren eskumenak, funtzionamendua eta boterearen banaketa argi eta garbi zehaztea ere.
- Erregimen ekonomikoari dagokionez, honako hauek ezartzen dira: ekarpenen baldintzak (bazkideek berreskura ditzakete), kuota-motak, finantziario-metodoak, irabaziak sortzen direnean jarraitu beharreko bideak, bai eta galerak eta funts sozialen sorrera eta funtzionamendua ere.

D) Komunikazio-estrategia landu

EBKren berri nola emango dugun eta kide berriak nola erakarriko ditugun adostea izango da “Elkarrekin sortzea” atalaren azken pausoa. Hortaz, komunikazio-estrategia diseinatzea dagokigu:

- Zein da helburua? Zer lortu nahi dugu?
- Norengana iritsi nahi dugu? Zein da publikoa?
- Zer estrategia erabiliko dugu hori lortzeko? Zer komunikazio-ekintza aurreikusten ditugu?
- Zer mezu zabalduko dugu? Zein izen izango du komunitateak? Eta zer irudi?
- Nola planifikatuko dugu? Noiz eta zer ordenatan egingo dugu?

Galdera horiek eta gehiago erantzun beharko ditugu abiatze-fasean egitea aurreikusten den aurkezpen-zein erakartze-lanetarako.

Komunikazio inklusiborako gomendioak

Hizkuntzen erabileran arreta jarri.

Irudien erabilpenean:


- Pertsonen arteko aniztasuna agerian jarri.
- Emakume eredu askotarikoak ikusarazi.
- Emakumeak gizarte bizitzako subjektu aktibo gisa irudikatu.
- Emakumeen eta gizonen arteko harremanak berdintasunean azaldu.
- Argazkiak zein angelutatik aterata dauden erreparatu.

Gai honetan gehiago sakontzeko, REAS Euskadik eta Pikara Magazinek ateratako gida hau duzue eskuragarri: **“Gako praktikoak genero-ikuspegia aintzat hartzen duten komunikazio-moldeak abiatzeko”**.

3.3.3. Lantaldeak sortu

Atal honen hasieran aipatu bezala, EBK sortzeko ardura Talde Sustatzaileak izango du, baina lanak banatu eta eraginkortasunean irabazteko une batetik aurrera lantaldeetan lan egitea egoki izan daiteke.

Orain arteko esperientziatik, gutxienez hiru lantalde sortzea proposatzen dugu:



Gai bakoitza bere lantaldean landuko da, baina ez ahaztu, erabakigune nagusia Talde Sustatzailearen bilerak izango direla; lantaldeak, berriz, gogoetarako eta proposamenak lantzeko guneak izango dira.

Era berean, lantaldeak osatzerakoan, kontuan hartu beharko da orekatuak izatea eta aurretiaz ondo zehaztea Talde Sustatzailearekin harreman-fluxuak nolakoak izango diren.

Laburpen moduan hemen jasotzen ditugu lantalde bakoitzaren ezaugarriak:

Komunitatea eta komunikazioa lantaldea	Komunitatearen zaintzaz eta harreman-sareak zabaltzeaz arduratuko den lantaldea izango da. Bertan zehaztuko dira komunitatearen funtzionamendua , harreman-sareak etengabe zabaltzen joateko bideak eta komunikazio-estrategia.
Energia-proiektuen lantaldea	Proiektu desberdinak proposatu eta horien bideragarritasuna aztertzea izango da lantalde honen egiteko nagusia. Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, urgentzia eta eragin dezakeen ingurumen-inpaktua, zein inpaktu soziala izango dira, gutxienez, kontuan izan beharreko alderdiak. Ez dago metodologia bakar bat inpaktu-mota guztiak neurtzen dituenena, kasuan kasu egokiena bilatu beharko da, baina, zehazki, inpaktu soziala aurreikusteko, baliagarria izango zaigu balioen markoa eraikita izatea.
Lantalde juridiko-administratiboa	Lantalde hau kooperatibaren eraketan landu beharreko alderdiez arduratuko da. Kooperatibaren estatutuak landu beharko dira eta bertan jasoko diren organo, bazkide-mota eta finantzazio-iturrien inguruko gogoetak egin. Horrek guztiak definituko du komunitatearen gobernantza-eredua bera. Komunitatearen bideragarritasun ekonomikoa ere landu beharko du, denboran zehar iraun dezan.


Talde-lana sustatu eta antolaketa-egitura definitzeko dinamika proposamena "Materialak" atalean dago.

Beraz, eta laburbilduz, elkarrekin sortzen fasea amaitutzat emateko, honako hauek izan beharko ditugu esku artean:

- **Talde Sustatzailea eta hiru lantaldeak** (edo dituzten funtzioak) **osatuta** eta euren kabuz funtzionatzen.
- **EBK komunitatearen ezaugarriak definituta.**
- **Zein energia-proiektu izango den lehena** erabakita.
- Kooperatibaren ezaugarriak adostuta eta hori **sortzerako izapideak prestatuta.**
- **Komunikazio-estrategia** prest.



ELKARREKIN SORTZEA



3.4. ABIATZEA

Unea iritsi da! Une honetan elkarrekin sortutako EBK aurkeztea eta abiatzea dagokigu. Horretarako, **tokian tokiko errealitate eta dinamikekin bat datorren aurkezpen-ekitaldi bat egitea proposatzen da**, betiere aurrez adostutako komunikazio-estrategia kontuan hartuta.

Aurkezpenean, EBK zer den eta zergatik sortu nahi dugun argi azaldu beharko dugu. EBK sortze-prozesua zein izan den eta nola egin dugun kontatu beharko dugu, komunitateko kide guztien partaidetza eta konpromisoaren eraiki dela garrantzia azpimarratuz. Eta, noski, hemendik aurrerako asmo eta lehentasunak zeintzuk diren partekatu beharko dugu, kide berriak gehitzeko unea dela azpimarratuz.

Horrela, EBK abiatzeko mekanismo guztiak aktibatu beharko ditugu:

- **Komunikazio-plangintza** garatu.
- **Kooperatiba gisa erregistratzeko** pausoak eman.
- **Energia-proiektua(k) martxan jartzeko** egin beharreko erantzun.
- Kide berrien **harrerarako jardunbideak** aktibatu.
- **Komunitatearen antolaketa** eta funtzionamendu egokirako **espazioak zaindu**.


Eta, noski, orain arte ikasi, praktikan jarri eta ondo funtzionatutako "egiteko moduei" eustea da gomendioa. Hala ere, eta EBK bat sistema bizi bat den heinean, ezin dugu ahaztu zailtasun eta oztopoekin topo egingo dugula. Komunitate barneko gatazkak, traba administratiboak, baimen-arazoak, finantziario falta... eta beste hainbat kontu ager daitezke. Egoera horietan ere, proposamena da kasuan kasu tinko heltzea eta EBK kideen artean irtenbide desberdinak bilatzea.

Hortaz, EBK bat abiatzeko makinaria guztia martxan jarri beharko dugu, tokian tokiko errealitatera egokituta. Asko dira kontuan hartu beharreko alderdiak, hala ere, gida honen aurkezpenean jaso dugun moduan, partaidetzaren begiradatik **lehentasunezko izango da pertsonak erdigunean jarri eta arreta emaitzan bezainbeste, prozesuko bizipenetan jartzea**.

Beraz, ekin bideari!



ABIATZEA



4. MATERIALAK

Atal honetan, EBK bat sortzeko orduan erabilgarriak izan daitezkeen zenbait material biltzen ditugu, hau da, komunitatearen antolaketa eta funtzionamendu onerako interesgarriak izan daitezkeen dinamikak, pertsonen arteko harremanak, haien lankidetzeta, talde-giroan eragiten dutenak eta hainbat gairi buruzko hausnarketa sustatzen dutenak.

Lortu nahi den helburuaren arabera aukeratuko da teknika bat edo bestea.

Ondoren, tresna bat eta lau teknika jaso dira.

- 4.1. **Agenteen matrizea:** agenteak identifikatzeko teknika.
- 4.2. **Gutun** didaktikoa: bilerak prestatzeko tresna.
- 4.3. Zergatik gaude hemen? **Itxaropenak lantzeko teknika.**
- 4.4. Nor ginen? Nor gara? Eta nor izango gara? Taldekideek **elkar ezagutzeko** teknika.
- 4.5. Talde lana eta antolaketa egiturak: **Lantalde baten egitura eta antolaketa definitu eta berrikusteko teknika.**


Horrez gain, -prozesuak dokumentuan. **Zer, zertarako, nork, nola...** (Elhuyar Aholkularitzarena eta Nicola Foronirena), laurogei bat teknikaren zerrenda duzue, lortu beharreko helburuaren arabera taldekatuta:

- Prozesua aztertu, hausnartu eta ulertzeko teknikak.
- Zeharkako ardatzak eta giroa lantzeko dinamikak.
- Taldea sortu eta kohesionatzeko teknikak.
- Talde txikitan banatzeko teknikak.
- Balorazio teknikak.

Nahiz eta lehentasuna dinamika zertarako erabiliko dugun jakitea izan, garrantzitsua da ariketa prestatzeko orduan taldean arreta jartzea: parte hartzen duten pertsonen motibazioa eta parte hartzeko gogoia; kide kopurua... Espazioaren edo gelaren aukerak edo mugak ere kontuan hartu beharko dira.

Teknika horiek guztiak oso erabilgarriak izan ohi dira taldea egituratzeko, eta pixkanaka probatu eta EBKren Talde Sustatzailearen bileretan erabiltzen baditugu, lan egiteko modu hori egunerokoan sartzen joango gara, eta haren balioa ikusiko dugu.

4.1. Eragileen matrizea

DINAMIKA	ERAGILEEN MATRIZEA
Helburua	Eragileen matrizea teknika bat da, kasu honetan EBK sortu eta martxan jartzeko garrantzitsutzat jotzen diren pertsona, eragile, erakunde... identifikatzeko aukera ematen duena.
Dinamikaren azalpena	<ol style="list-style-type: none"> Hasteko eta behin, EBKren eragin-eremua zehaztuko dugu, hau da, auzoa, herria, eskualdea... hartuko ote dugun aintzat. Horrekin batera, EBK-ko eragileek zer nolako ezaugarriak bete behar dituzten adostuko ditugu, hala nola: <ul style="list-style-type: none"> • Energia berriztagarriari buruzko informazioa, ezagutza eta esperientzia duten. • Energia-proiektuen garapena ezagutu eta baliabideak dituzten. • Pobrezia energetikoaren gaiak zuzenean eragiten dien. • Energia-gaien inguruan interesa duten edo izan dezaketen. • Komunitatearen ikuspegitik lan egiten duen • ... Ondoren, norbanakoak, eragileak, erakundeak... identifikatuko ditugu eta horretarako ideia-zaparrada bat egingo dugu, partaide bakoitzak ezagutzen dituen eragileak jasotzeko helburuarekin. Eragileen zerrenda esku artean, banan-banan post-it batean idatzi eta matrize honetan kokatuko ditugu: <div style="text-align: center; margin: 10px 0;">  </div> <p>Matrizean, eta adibide gisa, komunitate-ikuspegiaren arabera eta euren eragin-ahalmenaren arabera koka ditzakegu.</p> <ol style="list-style-type: none"> Izan ere, eta matrizearen kokapenaren arabera EBKn parte hartzeko gonbidatzerakoan, lehentasunak ezartzen lagunduko baitigu, baita eragile-motaren arabera zer nolako estrategia erabili behar dugun zehazteko ere.
Materiala	Orri zuriak, paper handia, post-itak, boligrafoak, errotuladoreak...

4.2. Karta didaktikoa

Bilerak talde-lanaren funtsezko osagaiak dira, baina eraginkorrak izan daitezen ez dute inprobisazioan oinarritu behar. Horrenbestez, garrantzitsua da bilera bakoitzaren aurretik planifikatzea: zer egingo dugun, egingo dugun horrek zein helbururi erantzungo dion, beharko ditugun baliabideak, denboraren kudeaketa eta bilerako zati bakoitzaz nor arduratuko den. Horretarako, baliabide erabilgarria da “karta didaktikoa” izeneko honako hau:

GAIA	HELBURUA	PROZEDURA	BALIABIDEAK	DENBORA	ARDURADUNA
Denbora-tarte honetan zer egingo dugu?	Zer helbururekin?	Gaia lantzeko eta helburua lortzeko, zer lan-prozedura eta dinamika erabiliko dugu?	Zer baliabide eta material behar ditugu?	Zenbat denbora eskainiko diogu gai honi?	Nor arduratuko da lanketaz eta gidaritzaz?
Sarrera	Bileraren helburua eta planteamendua partekatuko ditugu.				
Girotea	Bilera hasteko, girotze-dinamika bat egitea proposatzen dugu. Girotze-dinamikak helburu desberdinak izan ditzake, hala nola, taldea nola dagoen ezagutzea, taldeko konfiantza sustatzea...				
Lanketa	Aurrez adostutako lanketari hasiera emango diogu. Gaiak metodologia eta dinamika desberdinak erabiliz landu daitezke. Horiek tartekatzea gomendatzen dugu, hau da, talde handian, talde txikietan, binaka edo banakako lanketak tartekatuz, baita dinamika sinple edo konplexuagoak erabiliz ere.				
Balorazioa	Bilerak balorazio batekin bukatzea gomendatzen dugu; izan ere, ondo egindakoak eta hobetzekoak identifikatzen laguntzen baitigu. Horretarako, banakako erronda bat egin daiteke edo dinamika desberdinak erabili.				
Itxiera	Bilerari itxiera emango diogu, hurrengo urratsak zeintzuk diren azalduko ditugu eta eskerrak emango ditugu.				

4.3. Zergatik gaude hemen?

DINAMIKA	ZERGATIK GAUDE HEMEN?				
Helburua	EBK osatuko duten partaideen espektatibak, motibazioak eta beharrak ezagutzea.				
Dinamikaren azalpena	<p>1. Hasieran, bakarkako lana egingo dugu. Partaide bakoitzak lau txartel hartuko ditu eta txartel bakoitzean galdera hauek erantzun beharko ditu:</p> <table border="1" data-bbox="493 636 1080 904"> <tr> <td>Zerk motibatu nau EBK batean parte hartzera?</td> </tr> <tr> <td>Zer espero dut? Zeintzuk dira espektatibak?</td> </tr> <tr> <td>Zer behar dut EBKn gustura parte hartzeko?</td> </tr> <tr> <td>Zer eskaini diezaioket nik EBKri?</td> </tr> </table> <p>2. Lau galderak erantzun ondoren, banaka, bakoitzak bere erantzunak partekatuko ditugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zerk motibatu gaitu EBK batean parte hartzera? Bakoitzak bere erantzuna irakurri eta arbel (pareta...) batean jasoko dugu. Antzeko erantzunak multzokatu egingo ditugu, taldekide guztienak jaso arte. Behin erantzun guztiak jasota, irakurketa orokorra egingo dugu, taldekideok antzeko motibazioak ote ditugun edo ez... • Zer espero dut? Zeintzuk dira espektatibak? Taldekideen espektatibak EBKren sortze-prozesuak eskainitakotik urruntzen badira, EBK zer den gogorarazi eta irismena zein izango den argituko dugu. • Zer behar dut EBKn gustura parte hartzeko? Taldekideen beharrak jasoko ditugu. Horietako batzuk EBKren sortze-prozesuan kontuan hartzen ez badira, horiek asetzeko neurriak hartzeko aukera aztertu beharko dugu. • Zer eskaini diezaioket nik EBKri? Galdera honen bidez taldekide bakoitzaren potentzialitateak ezagutuko ditugu eta hori lagungarri izan daiteke, adibidez, lantaldeak osatzeko garaian. 	Zerk motibatu nau EBK batean parte hartzera?	Zer espero dut? Zeintzuk dira espektatibak?	Zer behar dut EBKn gustura parte hartzeko?	Zer eskaini diezaioket nik EBKri?
Zerk motibatu nau EBK batean parte hartzera?					
Zer espero dut? Zeintzuk dira espektatibak?					
Zer behar dut EBKn gustura parte hartzeko?					
Zer eskaini diezaioket nik EBKri?					
Materiala	Orri zuriak, txartelak (post-itak), boligrafoak, errotuladoreak...				

4.4. Harremanak eta talde-kohesioa

Bilera, lan-saio... edo dena delako espazio bati hasiera ematerako garaian garrantzitsua da taldea nola dagoen eta taldeko kideak nola datozen ezagutzea.

Honetarako aukera desberdinak erabili ditzakegu: banan-banan nola gatoz galdera erantzutetik hasi, dinamika konplexuagoak erabiltzeraino.

DINAMIKA	HARREMANAK ETA TALDE-KOHEGIOA
Helburua	Taldeko kideen artean ezagutzea eta era berean, nola gatozen jakitea.
Dinamikaren azalpena	<ol style="list-style-type: none"> 1. Taldekide bakoitzari orri zuri bat banatuko diogu eta orria hiru zatitan banatuko dugu. Zati bakoitzean hurrengoak marraztu beharko dugu: <ul style="list-style-type: none"> • 1. zatia = Iragana. Iraganeko zein gertaerak, positibo zein negatibok, lagundu dizu gaur egun zaren bezalakoak izaten? • 2. zatia = Oraina. Gaur egun zerk ematen dizu poza? Nola zaude? • 3. Zatia = Etorkizuna. Nola irudikatzen duzu zure burua hemendik eta 10 urtera? <p>Behin hiru zatiak marraztuta, moztu egingo ditugu.</p> 2. Ondoren, zutitu eta gelan zehar mugituko gara isiltasunean gainontzekoen irudiak ikusteko. Minutu baten ondoren, ondoan dugun kidearekin elkartu eta batak besteari zer marraztu dugun azalduko diogu. <p>Guztira hiru erronda egingo ditugu. Lehendabizi iragana, ondoren oraina eta amaitzeko etorkizuna partekatuz.</p> <p>Interesgarria izan daiteke marrazkiak elkar trukitzea.</p> 3. Amaitzeko eta talde handian, dinamikan zer moduz sentitu garen galdetuko dugu, baita bikoteetan partekatutakoaren inguruan zer edo zer kontatu nahi dugun ere.
Materiala	Orri zuriak, boligrafoak, errotulagailuak, margoak...

4.5. Talde-lana eta antolaketa-egiturak

DINAMIKA	TALDE-LANA ETA EGITURAK
Helburua	Taldea ezaugarritzea eta antolaketa-egitura definitzea. Era berean, taldeko kideen arteko harremanen nolakotasuna aztertu ahalko dugu.
Dinamikaren azalpena	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hasteko eta behin, EBK osatuko duten egitura desberdinak (Talde Sustatzailea, lantaldeak, sostengu-taldea...) irudikatuko ditugu paper handi batean. 2. Era berean, eta errotuladorearen laguntzaz EBK-ko egituren arteko harremanak eta informazio-fluxuak nolakoak izan beharko liratekeen marraztuko dugu. Marra jarraia etengabeko harremana izatea eskatzen bada eta marra etena informazio-fluxua ez bada hain garrantzitsua. 3. Ondoren, EBK osatuko dugun eragileak eta pertsonak identifikatuko ditugu. Eta kide bakoitzak bere burua borobil batean marraztuko du. 4. Kide bakoitzak zein EBK-ko zein egituratan parte hartu nahi duen adierazteko borobila paper handian irudikatutako egituretan kokatutako du. 5. EBK-ko antolaketa egiturak eta harreman-sare eta informazio-fluxuak marraztu eta kideak kokatu ondoren, honen gaineko gogoeta egingo dugu. Hemen lagungarri izan daitezkeen hainbat galdera: <ul style="list-style-type: none"> • EBKaren xedeari egokitutako antolaketa eta egitura da? • EBKaren helburuak lortzeko kide nahikoa al gara? Norbait falta da? • Egituraren bat orekatu beharra dago? • Kide guztiek dugu behar dugun informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera? • Errotazio sistemaren bat jartzea beharrezkoa da? • Zein izango da erabaki-gunea? Nor izango da erabaki-gunearen parte? • ... 6. Gogoetan zehar azaleratutako zalantzak eta ahulguneak ebazteko EBK kideen artean irtenbideak bilatuko ditugu.
Materiala	Paper handia, orri zuriak, boligrafoak, errotuladoreak, margoak, guraizeak...

5. ERREFERENTZIAK

Erreferentzia bibliografiko nagusiak eta irakurgai interesgarriak:

Erreferentzia bibliografikoak:

- Marchioni, M. (2004). La acción social en y con la comunidad. Zaragoza: Certeza.
- Morales, E. y Rebollo, O. (2014). Potencialidades y límites de la acción comunitaria como estrategia empoderadora en el contexto actual de crisis. Revista de Treball Social, 203, 9-22.

Irakurgai interesgarriak:


- Bizi Hezi. Komunitate inklusibo eta ekitatiboen eraikuntza. Etengabeko tresna. Emaus Gizarte Fundazioa (2018).
- Comunidades energéticas: una guía práctica para impulsar la energía comunitaria. Amigos de la Tierra (2020).
- Eraldaketa-prozesuak. Zer, zertarako, nork, nola... Nicola Foroni – Elhuyar Aholkularitza. Ulibarri programa. Eusko Jaurlaritza.
- Gako praktikoak genero-ikuspegia aintzat hartzen duten komunikazio-moldeak abiatzeko. Pikara Magazine eta REAS Euskadi (2021).
- Partaidetza eta gobernantza toki-erakundeetan. Material lagungarria. [4] Esku hartze komunitarioan parte hartzeari buruzko gidaliburua. Nafarroako Gobernua, Agenda 2030. (2020).
- Partaidetza prozesuak ebaluatzeko gida. Herritarren Partaidetza, Gipuzkoako Foru Aldundia (2019).

6. ESKER ONA

Gida hau BECoop (<https://www.be-project.eu/>) proiektuaren zati gisa egin da. Horretarako, Europako Batasuneko Horizonte 2020 ikerketa- eta berrikuntza-programaren finantzazioa izan dugu, 952930 zenbakidun akordioarekin.



Gida hau Goienerek prestatu zuen 2021/10 eta 2022/10 artean, Elhuyarrekin elkarlanean.



Gida honek Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko (CC-BY-SA) lizentzia librea du. Gida hau eta bertako edukiak partekatu eta moldatu ditzakezu edozein bitarteko edo formatutan, beti ere gidaren egilea aitortzen baduzu eta sortzen dituzun eratorriak lizentzia libre berarekin zabaltzen badituzu.

Xehetasunak: creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/legalcode.eu